

## **KONTROL MOZIOA**

### **COVID-19 BIRUSAK ERAGINDAKO KRISIAREN ETA KLIMA LARRIALDIAREN ERRONKEI ERANTZUN ERAGINKORRAK EMATEKO BEHARREZKO LANKIDETZA EREDU PUBLIKO- KOMUNITARIO BERRIARI BURUZ**

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko apirilaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Dagoeneko asko dira Covid-19 birusaren pandemiak utzitako lezioak, eta lehena ez bada, akaso bai garrantzitsuenetakoa, aurrerantzean komunitateak euren buruak ase beharko dituztela neurri handiagoan. Are eta gehiago, birusaren aurretik deklaratu garen Klima Larrialdia kontuan hartzen badugu.

Erronka ez da nolana hikoia. Etorkizunak interbentzio komunitario sendoak eskatzen ditu. Batetik, indartu beharko dira lekuan lekuko gaitasun komunitarioak eta, zentzu honetan, osasun larrialdiari erantzuteko antolatutako diren hamaika ekimen herritarren aparteko adibidea dira. Askok dira krisi testuinguru honetan zaugarritasun egoeran dauden herritarren eta oro har bizilagunen beharrei modu kolektiboan erantzuteko engaiatu diren donostiarrak. Harrera Sarea, Gurutze Gorria edo Caritas elkarteek egindako lana da adibidea. Eta horien artean aipatzekoa da Donostiako auzo eta herrietan sortutako Zaintza Sareak ekimena. Orotara 12 boluntario sare eratu dira hirian (Egia, Intxaurren, Amara Berri, Antigua, Parte Zaharra, Altza, Amara-Erdialdea, Añorga, Bidebieta, Morlans, Aiete eta Gros), eta gaur gaurkoz, 700 donostiar baino gehiagok agertu dute lanerako prestutasuna.

Eta bestetik, eta batez ere, sustatu behar dira tokiko erakunde publikoen eta gizarte-eragileen arteko elkarrekintza eta elkarlan dinamikak.

Gaurko krisiak erakutsi du etorkizuneko arazoek kudeaketa komunitarioa izango dela. Eta kudeaketa komunitarioak baliabide publikoaren gobernantza tokiko komunitatearen esku jartzen du, tokiko administrazioa (udala) bera eragile komunitario bihurtuz. Halaber, kudeaketa komunitarioak gobernantza demokratiko eta irekiko egituren bidez garatu behar

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

du, sektore zaugarrienek eta baztertuenek parte hartze orekatu bat izan dezaten bermatuz.

Agertoki berriak, finean, lankidetzaren eredu publiko-komunitario berriak errekeritzen ditu; hau da, erakunde publikoetatik orain arte garatutako ereduetatik harago egingo dutenak.

Batzordeetan, eredu berri honen inguruan interpelatuta, Udal Gobernuak ez du hartan sakontzeko konpromiso garbirik agertu.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako  
**KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari premia eta osasun larrialdiaren testuinguruan bizkortu diren herri-ekimenen bulkada baliatuz, etorkizuneko erronkei erantzun egoki eta eraginkorrak emango dizkien lankidetzaren eredu publiko-komunitarioa modu ireki eta parte-hartzailean pentsatzen eta adosten hasteko bitartekoak sortzea.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehen urrats bezala, eta Covid-19 birusaren aurrean osasuna zaintzeko neurrien arabera betiere, aipatu ekimenetan parte hartu duten eragile eta boluntarioekin, Udabaltza osatzen dugun taldeetako ordezkariekin batera, orain arteko balorazioak eta aurrera begirako iritziak konpartitzeko bilkura ireki bat deitzea.

Donostian, 2020ko maiatzaren 19an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**